



HERRIZAINGO, JUSTIZIA ETA
HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

DEPARTAMENTO DE INTERIOR,
JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

*Genero-indarkeriaren Biktimei
Laguntzeko Zuzendaritza*

*Dirección de Atención a las Víctimas de la
Violencia de Género*

**BARNE KOORDINAZIOKO PROTOKOLOA,
SUSPERTZEKO ETA GOGOETA EGITEKO ALDIAN
DAUDEN SEXU ESPLOTAZIORAKO GIZAKI-SALEROSKETAREN BIKTIMEI
LAGUNTZEKOA**



ERAKUNDEAREN



BABESTEN DUGU

SARRERA

Euskal Autonomia Erkidegoan sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzeko mekanismo argi eta eraginkor bat antolatzeko premia dago, eta protokolo hau premia horri emandako erantzuna da. **Haren asmoa** da Europako, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako erakundeek biktimei laguntza eta babesa eskaintzeko emandako **legeen eta arauen espiritua betetzea**; biktimak indarberritzeari lehentasuna ematen baitiete, euren egoera administratiboari buruzko gogoeten gainerik.

Proposamen honen ondorioetarako, **sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimatzat** jotzen dira sexu-esplotazioa nozitzen duten edo nozitu duten emakumeak. Emakume horiek, halaber, emakumeen kontrako indarkeria matxistaren biktimatzat jotzen dira, eta talde hauetan daude banatuta:

- **Administrazio-egoera irregularrean** dauden biktima potentzialak
- **Administrazio-egoera erregularrean** dauden biktima potentzialak

Horrenbestez, dokumentua gizaki-salerosketaren biktimak diren emakume guztiei buruzkoa da, beren administrazio-egoera edozein izanda ere. Berariaz aipatuko dira zein urratsetan bereizten diren prozedurak.

▷ Administrazio-egoera **irregularrean** dauden biktimek **suspertzeko eta gogoeta egiteko aldia** eska dezakete, **Espanian bizi diren atzerritarren eskubideei eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren** arabera. **Lege horrek ezartzen du aipatu aldia gutxienez 30 egunekoa** dela.

▷ Egoera **erregularrean** dauden biktimek ere **indarberritzeko** laguntza jasotzeko eskubidea dute Europar Batasuneko arauak aintzat hartuta, bereziki ondorengo hauek: **7/2010 Irizpena, Europako Batzordekoa¹, Gizaki-salerosketako Adituen Taldeak emana**; gizaki-salerosketa prebenitzeari eta haren kontra borrokatzeari eta biktimak babesteari buruz **Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2010ean emandako Zuzentaraua**; biktimak zigor-prozesuan duen estatutuari buruz **Europako Kontseiluak 2001eko martxoaren 15ean hartutako Esparru-erabakia**, eta **EBko biktimen eskubideak sendotzeari** buruz Europako Parlamentuko Batzordeak Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari **2011ko maiatzean** helarazitako Komunikazioa.

PROTOKOLOAREN HELBURUA

¹ Opinion No. 7/2010 - Proposal for a European Strategy and Priority Actions on combating and preventing trafficking in human beings (THB) and protecting the rights of trafficked and exploited persons

Protokoloaren helburua da EAEn sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntza osoa emateko jarduerak identifikatzea eta egituratzea. Horregatik, hain zuzen, ezartzen ditu Ertzaintza, Polizia Kidego Nazionaleko Atzerritartasun Brigadak, Fiskaltza, eremu judiziala eta Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza koordinatzeko formulak, emakumea sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimatzat jotzen den momentutik.

HELBURU OROKORRA

Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima diren emakume guztiek indarberritzeko denboraldi bat izan dezatela erraztea, baita euren egoerari begira egokiak diren babesa, laguntza eta tratamendua jasotzea ere.

JARDUTEKO PROZEDURA OROKORRA

GAI OROKORRAK

▷ Laguntza bereziko baliabideek uste dute, duten eskarmentuari erreparatuta, beharrezkoa dela **90 eguneko aldia** izatea; hain zuzen, biktima bere etorkizunari buruzko erabakia hartzeko moduan egon dadin eta hori erakundeek kontuan hartu behar dutela. Izan ere, askotan beharrezkoa izaten da diziplina anitzeko lan luzea egitea sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima potentzialak diren emakumeei sinestarazteko komenigarria dela euren parte-hartzea, euren kontra eta beste emakume batzuen kontra egindako delituaren jazarpena egin ahal izateko.

- Ildo horretatik, dokumentu honetan parte hartzen duten erakunde guztiak saiatuko dira organizazio espezializatuek gomendatutako epeak betetzen.
- Suspertzeko eta gogoeta egiteko aldirako Gobernuaren Ordezkariordeztzak onartutako hasierako epeak eta ondorengo luzapenak ebazpen bidez nahiz administrazio-isiltasunaren bidez beteko dira, araudiak adierazten duen bezala.

▷ Kasu guztietan, inplikaturako erakunde guztiak ahaleginduko dira biktima guztien susperraldia eta auzietarako aldia denboran egokitzen, horrela biktimei suspertzen eta kalitate handiagoko lekukotza ematen laguntzeko, gaur egun halaxe egiten saiatzen baita genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen kasuetan.

▷ **Ertzaintzak** edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek **egiten dute identifikazio-prozesua**.

▷ **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza** sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzeko **erakunde koordinatzaile** gisa eratzen da. Hura ere arduratuko da Euskal Autonomia Erkidegoan biktimatzat jotzen diren pertsonak


biktimak direla laguntza-baliabideentzat "egiaztatzeaz", eta egokiena den laguntza-baliabiderekin biktima harremanetan jartzeaz ere bai.

▷ **Delitua ikertzeaz arduratzen den kidego poliziala biktimen babesaz eta segurtasunaz ere arduratuko da.** Beste kidego polizial batek hasitako ikerketarik egon ezean, Ertzaintzak du eskumena ikerketa hasteko eta biktimen babesaren ardura hartzeko.

▷ Bigarren biktimizazioak eragozte aldera, prozedura honetan parte hartzen duten erakundeak ahaleginduko dira frogak lortzen biktimak behin eta berriro parte hartzeko beharra eragin gabe.

▷ Gomendatzen da zuzenean epaitegietara doazen biktimak polizia judizialera bidera ditzatela, hain zuzen, arriskuaren balorazioa lehenbailehen hasteko helburuz.

▷ Isilpekotasuna eta segurtasuna babeste aldera, laguntza-baliabideek **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari** baino ez diote helaraziko **biktima babesteko behar den informazio guztia**, biktimaren kokapena barne. **Aipatu zuzendaritzak Ertzaintzari edo kidego polizial arduradunari** helaraziko dio informazio hori, eta azken horrek, aldi berean, Fiskaltzari emango dio ikerketa-eginbideen instrukzioa egiteko beharrezkoa den informazioa. Hala, komunikazio-ibilbide hau ezartzen da, prozedura judizialaren aurretiko faseetan, biktimaren egoerari buruzko informazio osorako:



▷ Esku-hartzea amaitutakoan, koordinazio-mekanismoak garatzen diren eta beharrezko baliabideak antolatzen diren heinean, zenbait **segimendu-estrategia** planifikatu ahalko dira. Estrategia horiek protokolo honetan sartuko dira, biktimaren azken bizitokiaren arabera.

PROZEDURA

1. Ertzaintzak edo kidego polizial eskudunak biktima potentzialak **identifikatuko ditu**, bere erakunde-barruan ezarritako **identifikazio-jarraibideen** arabera. Jarraibideok 2011ko ekaineko "Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima izan daitezkeen pertsonak identifikatzeko adierazleak" izeneko dokumentuan daude jasota.

1.a. Biktimak edo salatzaileak poliziaren aurrean egiten duen lehenengo deklarazioan, sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren kasuan, **lekuko babestua** izateko aukera eskainiko zaio eta, ondoren, epaileak baldintza hori berretsi egin beharko du.

1.b. Osasun-zentro batean laguntza jasotzeko premia larria egonez gero, prozedura judiziala ireki baldin bada, kidego polizialak Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak (AMEE) parte har dezan eskatuko dio Fiskaltzari eta/edo eskudun epaitegiari, eta azken horrek erabakiko du auzitegiko medikuak bertaratu eta azterketa egin behar duen ala ez. Osasun Zentroari emango zaio egoera horren berri.

1.c. Biktima egoera irregularrean badago, jakinaraziko zaio aukera daukala **suspertzeko eta gogoeta egiteko aldiaren** babes hartzeko.

1.d. Biktimari informazioa emango zaio isilpekotasunaren printzipioari eusteari buruz, bere egoerari buruz eta dituen eskubideei buruz; hain zuzen, modu eta eduki hauen bidez:

- "Sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktima izan daitezkeenentzako 2011ko baliabide-gida" emango zaio.
- Azalduko zaio aukera daukala beste emakume batzuekin batera harrerapisu batean sartzeko, non bere segurtasuna lehenetsiko den.
- Biktima harrera integraleko baliabidean sartzea aukeratu duela kontuan hartu gabe, jakinaraziko zaio diziplina anitzeko laguntza jaso dezakeela eta; halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren telefonoa (900 840 111) emango zaio informazio gehiago lortzeko.

2. Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek, emakumea sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimatzat jo ondoren, **arriskuaren ebaluazioa** egingo du esplotazio-egoeraren, ustez inplikaturako pertsona-salerosleen eta burutzen ari den polizia-prozesuaren arabera eta; halaber, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzara bidaliko den **txostena** prestatuko du.

3. Identifikazioa egin ondoren, Ertzaintzak edo Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek egin beharreko ikerketa-eginbideak irekiko dituzte, eta **Genero Indarkeriaren Biktimei**

Laguntzeko Zuzendaritzari gizaki-salerosketaren biktimatzat jotako emakumearen berri emango dio 24 orduko arretarako telefonoaren bidez (900 840 111). Halaber, aipatu zuzendaritzak, zerbitzu horren bidez, Ertzaintzari edo dagokion kidego polizialari azalduko dio laguntza integraleko zein baliabide edo -hala egokituz gero- zein topagune ezarri den, laguntza integralerako baliabidea kudeatzen duen antolakundearekin adostuta, emakumea hara eramateko.

4. Kasua prozedura judiziala hasi aurreko fasean egonez gero, **Fiskaltzari** ere jakinaraziko zaio emakumea sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimatzat jo dela eta hark, bere irizpidearen arabera, epaileari horren berri emango dio.

5. Laguntza-baliabideak premiak baloratuko ditu eta, Ertzaintzak edo kidego polizial arduradunak ezarritako segurtasun-jarraibideak errespetatuz, **esku hartzeko plan bat** landuko du, biktimarekin adostuko baita. Orobat, txosten bat egingo du eta bertan zehaztuko da -betiere biktimaren zirkunstantziak kontuan hartuta- biktimak zenbat denbora beharko duen indarberritzeko eta, ondoren, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari bidaliko dio.

6. Biktimak Europar Batasunetik kanpoko nazionalitatea izanez gero eta, horrez gain, administrazio-egoera irregularrean badago, kidego polizialak suspertzeko eta gogoeta egiteko aldia emateko eskabidea helaraziko dio **Gobernuaren Ordezkariordeztzari**. Bidalketa-ofizio horrekin batera biktimak suspertzeko beharko lukeen denborari buruzko gomendio bat igorriko da. Gomendioa biktima hartu duen laguntza-baliabideak egingo du. Era berean, Espainian bizi den biktimaren administrazio-egoera irregularra dela edo ez dela, agiri-irregulartasun edo -faltzutasunik antzemanaz gero, kidego polizial eskudunak kontu horri buruzko ikerketa egiteko beharrezko informazioa igorriko du Gobernuaren Ordezkariordeztzara.

7. Ertzaintzak edo kidego polizial arduradunak arriskuaren ebaluazio etengabea egingo du, eta **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari** emango dio segurtasun-planeari sartzen diren aldaketen berri. Orobat, **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak laguntza integraleko baliabideari** behar den informazioa helaraziko dio.

8. Ertzaintzak edo kidego polizial arduradunak, hala behar denean, Gobernuaren Ordezkariordeztzari jakinaraziko dio gizaki-salerosketaren biktima-egoeran egoteagatik **gertatutako irregulartasuna**.

9. Ezartzen diren **gutxieneko baldintzak** betetzeaz gain, laguntza emateari amaiera emateko beharrezkoa izango da **poliziak egiten duen arrisku-ebaluazioak ez aholkatzea** biktimak ez duela harrera-baliabidetik irten behar.

10. Harrera-baliabidea kudeatzen duen antolakundeak esku-hartzearen helburuak bete direla uste duenean edo biktimak, bere borondatez, esku-hartzea bertan behera uztea erabakitzen duenean, aipatu baliabideak **azken txostena** egingo du, eta **Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari jakinaraziko dio** biktima baliabidetik irten dela eta nora joan den.

11. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak ezarriko du ofizialki esku-hartzearen amaiera biktimaren "suspertzeko eta gogoeta egiteko" edo indarberritzeko aldiaren eta, halaber, **Ertzaintzari** edo kidego polizial arduradunari **jakinaraziko dio** biktimak baliabidetik alde egin duela eta nora joan den, eta Ertzaintzak eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoek Fiskaltzari horren berri emango diote.

12. Biktimak harrera-pisua alde aurretik adierazi gabe utziz gero, laguntza-baliabidea kudeatzen duen antolamenduak lehenbailehen jakinaraziko dio **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari**, eta beronek ikerketaren ardura duen **kidego polizialari**, zer gertatu den eta zeintzuk izan daitezkeen inguruabar eragileak.